



Donostiako kartzelen historia laburra

Bertan bizi izan ziren eta bizi
diren pertsonei buruz



Hasiera batean, espetxeak pribatuak eta udalekoak izan ziren.

Are gehiago, XX. mendera arte, espetxea zaintza-leku soilak zen epaiketaren edo gorputz-zigorren betearazpenaren zain. Jakina, espetheen baldintzak ankerrak eta osasungaitzak ziren.

Pobreenak eta baztertuenak zigortzen zituzten lekuak ere izan ziren. Espetxe horietan, adibidez, ijitoen etniako pertsonak, "gaizki bizi ziren" emakumeak eta arloak delitugiletzat jotzen ziren. Gainera, delitua eta bekatua nahasten ziren.



Donostian, Erdi Aroan, Motako gazteluko jurisdikzio militarreko kartzela eta Kontsuletxeko kartzela existitu ziren.

Kontsuletxeko kartzela kaian (egungo Ontzi Museoaren eraikinean) egon zen. Kontsuletxeko kartzelak zerikusia zuen ugazaben eta marinelen arteko arazoekin.



XIV. mendekoa da **Engómez familiaren kartzela**, kartzelari batekin eta borrero batekin. Familia honek bere etxea, harresiaren zati bezala zuen, Narrika kalearen amaieran. Abusuak eta botere-gatazkak etengabe salatu ondoren, Errege Katolikoek, XV. mendearen bigarren erdian, probestuaren boterea mugatu zuten, udalbatzaren alde. Erregeek Sagrumenteria edo Sagrumenteroen Dorrean kartzela publiko bat sortzea agindu zuten (harresiaren ipar-mendebaldean, dirudienez, kanpoaldeko gunerearekin batean).




1530etik aurrera, preso batzuen gorputzeko zigorrak meatze eta galeretako lanengatik aldatu ziren, eta beste hiri batzuetara eraman behar izan zituzten. Galera-zigorra ez zen 1803 arte desagertu.

1570 inguruan espetxean egon ziren emakumeak gizonezkoengandik banandu zituzten Donostian, lonjan.



Bestalde,
1773an,
delitugileentzak
o asilo-
pribilegioa
Santamaria eta
San Bizente
parrokiek baino
ez zuten.




XIX. mendearen hasieran, Jesusen Lagundiaren Elkargoa, **Trinitate kalean**, jesuitak kanporatu ondoren hiriari utzitako eraikina, kartzela gisa erabili zen napoleondar okupazioan, **1848tik 1889ra** kartzela publikoa izan zelarik.

Gros eta Amaran pentsatu ondoren, azkenean, 1885ean, Udalak **Ondarretako kartzela** eraikitzea erabaki zuen, 519.000 pezetako aurrekontuarekin. **1890**eko urtarrilaren 31n, jesuiten eskola zaharreko presoak Ondarretara eraman zituzten.



Gerra zibilean beste eraikin batzuk ere erabili ziren espetxeak bezala, hala nola Saturrarango Emakumeen Espetxe Zentrala (Motriko), Tolosako Espetxea edo Azpeitikoa.




1944an, Martuteneko
espetxea eraikitzeko
lurren lagapena
eskrituratu zen.
Ondarreta leku
turistikoegia zen eta
kuartelen hurbiltasuna
ere bilatu zen.

Kartzela horretako lurrak,
bere garaian, Benartegui
baserriarenak izan ziren,
Peñafloridako
kondearenak, eta honek
Udalari saldu zizkion
1942an, metro karratuko
18 pezetaren truke.



1939ko ekainaren 30ean,
Gerra Zibila amaitu
ondoren, Santa Ana
karitateko mojak
Ondarretako espetxe
probintzialera iritsi ziren
"Ekonomatoaren,
Sukaldearen,
Emakumeen eta
Erizaintzaren lanak
arduratzeko", eta 1948an
Martuteneko espetxera
igaro ziren.

Martuteneko espetxean
bizi izan ziren 2014 arte.




Hasieran, Martuteneko espetxeak ziega kolektiboak zituen eta domekako mezara joatea derrigorrezkoa zen.

2005ean, Barne Ministerioak eta Donostiako Udalak Martuteneko espetxea ixtea erabaki zuten.



Alde
Zaharretik,
Ondarretatik,
Zubietara
(2023ko
udaberrian):
leku eta
logika
aldaketa?



Espetxeei buruzko eskumenak eskualdatuta, Eusko Jaurlaritzak eredu leheneratzailea agindu du: birgizarteratzea eta erreparazioa bermatuko duten neurri alternatiboak eta kartzela irekiagoak aplikatzea.

Eztabaida abolizionista: oinarri enpirikoa utopikoa baino gehiago